

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



# Geografia

# USE 2020

[www.ehu.es](http://www.ehu.es)



***Ez ahaztu azterketa-orrialde guztietan kodea jartzea.***

- Proba idatzi honetan **3 ariketa egin** behar dituzu.
- Ariketak hiru multzotan banatuta daude:

**A multzoa (4 puntu): A1 eta A2 aukeren artean, aukeratu bat.** Mapak, grafikoak edo irudiak ondo egitea eta aurkeztutako materiala ulertzea eta era egokian interpretatzea hartuko dira kontuan.

**B multzoa (4 puntu): B1 eta B2 aukeren artean, aukeratu bat.** Ezagutza-maila eta erlazioak egiteko gaitasuna hartuko dira kontuan.

**C multzoa (2 puntu): Proposatutako 8 kontzeptuetatik 4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du). Kontzeptu geografiko bakoitza definitzeko, gehienez 5 lerro erabil daitezke.

***Jarraibideetan adierazitakoei baino galdera gehiagori erantzunez gero, erantzunak ordenari jarraituta zuzenduko dira, harik eta beharrezko kopurura iritsi arte***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

- En esta prueba escrita **realizarás 3 ejercicios.**
- Los ejercicios están distribuidos en tres bloques:

**Bloque A (4 puntos): Elige una opción entre A1 y A2.** Se valorará la correcta elaboración de los mapas, gráficos o imágenes, y la comprensión y correcta interpretación del material presentado.

**Bloque B (4 puntos): Elige una opción entre B1 y B2.** Se valorará el nivel de conocimientos y la capacidad para establecer relaciones.

**Bloque C (2 puntos): Define 4 de los 8 conceptos propuestos** (valorados hasta 0,5 puntos cada uno de ellos). Cada concepto geográfico debe ser definido en una extensión que no sobrepase las 5 líneas.


***En caso de responder a más preguntas de las estipuladas, las respuestas se corregirán en orden hasta llegar al número necesario.***



A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)


A1 eta A2 aukeren artean, aukeratu bat

A1.- Espainiako demografia-erregimenen bilakaeraren grafikoaren iruzkina (1886 urtetik orain arte) (4 puntu).



Iturria: INE

A2.- Klimogramaren eta klima bakoitzari dagozkion landaredi motaren iruzkina (4 puntu).



Iturria: AEMET



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2020ko EZOHIKOA

**GEOGRAFIA**

*EVALUACIÓN PARA EL ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD*

*EXTRAORDINARIA 2020*

**GEOGRAFÍA**

**B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)**

B1 eta B2 aukeren artean, **aukeratu bat**

**B1.-** Industriaren kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan (4 puntu).

**B2.-** Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde atlantikoan (4 puntu).

**C MULTZOA: Definizioak (2 puntu)**

Proposatutako 8 kontzeptuetatik **4 definitu** (bakoitzak 0,5 puntu balio du).

Definizioa (5 lerro, gehienez):

- Klima (0,5 puntu)
- Europar Batasuna (0,5 puntu)
- Arro hidrografikoa (0,5 puntu)
- Arrisku naturala (0,5 puntu)
- Frankizia (0,5 puntu)
- Nekazaritzako azalera erabilia (0,5 puntu)
- Ingurune landa-hiritarra (0,5 puntu)
- Paisaia (0,5 puntu)



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### GEOGRAFIA

Azterketaren balorazioa egiteko, kontuan hartuko da ea galdera praktikoan, galdera teorikoan eta kontzeptuen definizioan zuzen erantzuten zaion galdetzen denari.

#### Irizpide orokorrak

Bereziki kontuan hartuko da:

- kontzeptuen argitasuna
- idazkeraren zuzentasuna eta heldutasuna
- erlazionatzeko gaitasuna
- elementu eta faktoreak sailkatzeko gaitasuna
- erantzun ordenatua egituratzea
- mapa/lauki/taula edo grafikoaren iruzkina erlazionatzea eta kartografiako kokapen zuzenak egitea.
- ezagupen-maila

#### Irizpide espezifikoak

##### A MULTZOA: Ariketa praktikoa (4 puntu)

**A1.-** Espainiako demografia-erregimenen bilakaeraren grafikoaren iruzkina (1886 urtetik orain arte) **(Praktikoa): puntuazioa 0/4.**

-Utiliza las herramientas de estudio de la población.

*Estándares de aprendizaje evaluable, Orden PCI/12/2019*

6.- Ea biztanleria funtsezko faktore gisa ulertzen duen (izan ere, biztanleriaren banaketak, dinamika eta egiturak eragin garrantzitsua dute espazioa osatzeko prozesuetan). Eta, era berean, ea desberdintasun ekonomikoan, biztanleriaren banaketa desberdinaren, migrazio-mugimenduen edo biztanleriaren zahartzearen arazoak eta ondorioak azaltzen dituen.

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- ✓ Grafikoko bi kurbak batera deskribatzea eta esanahia adieraztea.
- ✓ Grafikoan ikusten diren faseak finkatzea: XX. mendearen hasierara arte, 1900-1975, 1975-1998, gaur egun arte
- ✓ Fase bakoitza azaltzen duten kausak aipatzea.
  - erregimen demografiko zaharra: jaiotza-tasa handiak, landako ekonomia eta gizartea nagusi zelako eta jaiotzak kontrolatzeko sistema eraginkorrik ez zegoelako; heriotza-tasa handia bizi-maila baxua zelako eta elikadura-, osasun- eta medikuntza-baldintzak eskasak zirelako.
  - trantsizio demografikoa: jaiotza-tasak modu leun eta ez-jarraituan egiten du behera, goraldiak eta beheraldiak tartekatuz. Haien arazoak hauek dira: 1920ko hamarkadaren



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

oparotasun ekonomikoa, 1929ko krisialdia, gerra zibila eta gerra osteko egoera, nazioarteko blokeoaren eta autarkiaren amaieraren osteko garapena, industriari eta hiriarri lotutako bizimodua hedatzea, zeinak seme-alaben balio ekonomikoa txikiagotu baitzuen; heriotza-tasaren beherakada, 1918ko gripearen eta gerra zibilaren salbuespenekin, bizi-mailak gora egin zuelako eta medikuntza-aurrerapenei esker, haren ondorioa izan baitzen hurren heriotza-tasak behera eta bizi-itxaropenak gora egitea.

- jaiotza-tasak behera egiten du indarrez, egoera ekonomikoa eta soziologikoa aldatzearen ondorioz.
- 1998tik aurrera, jaiotza-tasa apur bat berreskuratzen da immigrazioaren eraginez, baina 2008tik aurrera berriro jaisten da krisialdiaren ondorioz; heriotza-tasa txikia da oraindik, baina 1982tik aurrera gora egiten du pixka bat biztanleriaren zahartzearen ondorioz.
- azken urteetako berezko hazkunde negatiboa.

### A2.- Klimogramaren eta klima bakoitzari dagozkion landaredi motaren iruzkina (Praktikoa): puntuazioa 0/4.

– Comenta climogramas específicos de cada clima

Estándares de aprendizaje evaluables, Orden PCI/12/2019

3.– Ea ingurune naturalaren ezaugarri orokorrak zein diren ba ote dakien, Espainian eta Euskadin dauden multzo naturalak ezagutzen dituen, multzo horiek mapan aurkitzen dituen, bertako elementuak eta dinamika identifikatzen dituen, haien interakzioak azaltzen dituen eta gizakiaren ekintzak betetzen duen zeregina balioesten duen.

Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- Tenperatura- eta prezipitazio-erregimenak urtaroka deskribatzea, lehorteak eta euriteak, hotzaldiak eta beroaldiak eta urtaroen arteko aldeak nabarmenduz. Ezaugarri horietatik, estazio meteorologiko honen klima deduzitzea eta beraren klima-aldaerari dagokion kokapena zehaztea. Adieraztea zer landaredi potentziala dagokion.

Klima ozeanikoa. Prezipitazioak ugariak, erregularrak eta leunak (> 800 mm urtean). Eurien banaketa nahiko erregularra da, fronte polarreko depresioek etengabe jarduten baitute. Prezipitazioak handiagoak dira neguan, depresio horien maiztasuna handiagoa delako; udan minimo erlatibo bat, Azoreetako antizikloiaren eraginez. Anplitude termiko txikia kostan, itsasoaren eraginari esker (9 °C eta 12 °C artean). Uda freskoa (batez besteko tenperatura hilabete batean ere ez da 22 °C edo handiagoa). Negua moderatua (hilabeterik



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

hotzeneko batez besteko tenperatura 6 °C eta 10 °C artekoa da). Estazio meteorologikoa: Santiago de Compostela (Aireportua). Baso hostoerokorra, zakardia eta belardia.

### B MULTZOA: Gaia garatzea (4 puntu)

**B1.-** Industriaren kokapena Euskal Autonomia Erkidegoan. **(Teoria): puntuazioa 0/4.**

- |   |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"><li>-Analiza información sobre los problemas y configuración de la industria española.</li><li>- Enumera las características de la industria española y sus diferencias regionales.</li></ul> |
|---|

*Estándares de aprendizaje evaluable, Orden PCI/12/2019*

- |  |
|--|
| <p>4.- <i>Ea jarduera ekonomikoak eta haiek eragiten dituzten eraldaketak aztertzen dituen, ingurunearen eta giza taldeen arteko erlazioa, giza talde horien kokapen-faktoreak eta banaketa ezagutzen dituen, egungo joerak azaltzen dituen eta joera horiek beren Europako testuinguruan balioesten dituen.</i></p> |
|--|

*Ebaluazio-irizpideak, 127/2016 Dekretua*

Alderdi hauen tratamendua balioetsiko da:

- ✓ Hiru hiriburuak eta Ibaizabal eta Deba haranetako industria-korridoreak aipatzea
- ✓ Bizkaiko eredia, Bilbo Handian polarizatua; Arabako makrozefalia, Gasteizen; eta Gipuzkoako banaketa orekatuagoa, probintzia osoan hedatua
- ✓ Industrializazio endogenoan oinarritutako hiru fokuen sorkuntza: Markina-Ondarroa, Arabako haranak, Arabako Errioxa.
- ✓ Industria-politika: industria inguru berrietan ezartzeko laguntzea (industrialdeak), eta ETEentzako eraikinak prezio lehiakorretan eskaintzea.

**B2.-** Nekazaritzarako, abeltzaintzarako eta basogintzarako espazioak Euskal Autonomia Erkidegoko isurialde atlantikoan. **(Teoria): puntuazioa 0/4.**

Alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Isurialde atlantikoaren eta mediterraneoaren arteko banalerrotik iparraldera kokatutako lurri dagokien paisaia da: erliebe malkartsua, klima ozeanikoa eta lurzorua kalitate kaskarra.
- Populazioa baserrietan sakabanatua.
- Nagusitzen den nekazaritza-ustiapena baserria da.
- Produkzio-sistema intentsiboa: barazki- eta esne-espezializazioa.
- Lurraren erabilera: belar-bazka, belardi naturalak eta baratza.
- Abeltzaintzaren espezializazioa: idi/behi- eta ardi-aziendak.
- Hazkunde azkarreko zuhaitz-espezieen baso-ustiapena



## ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

### C MULTZOA: Definizioak

**4 kontzeptu aukeratu behar dira: puntuazioa 0/0,5 kontzeptu bakoitzeko.**

Definizioek gehienez 5 lerrokoak izan behar dute; beraz, sintesi-gaitasuna kontuan hartuko da.

Kontzeptuen definizioa hemen adierazten denaz bestelakoa izan daiteke, eta, hala ere, balekoa izan. Orientabide gisa balio dezakete hemen ematen diren definizioek:

**Klima:** leku bateko atmosferaren batez besteko egoera, urte osoan leku horretan gertatzen diren eguraldi moten ohiko segidak eraginda. Klimaren ezaugarriak modu estatistikoan zehazten dira, batez besteko balioak kalkulaturik. Haien fidagarritasuna lortzeko, epe luzeko behaketak behar dira.

**Europar Batasuna (EB):** Europako Ekonomia Erkidegoaren oinordekoa den erkidego ekonomiko eta politikoa, 1993an sortua. Europako 27 estatuz osatuta dago. Haren organo erabakitzaile nagusiak Parlamentua, EBko Ministro Kontseilua eta Batzordea dira.

**Arro hidrografikoa:** ibai batek eta haren ibaiadarrek drainaturiko lurraldea.

**Arrisku naturala:** prozesu naturala, gizakien ongizaterako edo bizitzarako mehatxua izan daitekeena, ondorio katastrofikoak izan ditzakeelako: pertsonak hiltzea eta kalte materialak azpiegituretan, eraikinetan, uztetan ...

**Frankizia:** juridikoki desberdina den enpresa bateko establezimendu-katea, kontratu baten bidez lotuta dagoena non frankizia-emaileak emakidadunei marka edo merkataritza-formula bat ustiatzeko lizentzia ematen dien, kopuru bat ordaintzearen truke, laguntza, publizitatea eta abar emanez.

**Nekazaritzako azalera erabilia:** landutako lurren eta larreetarako lurren azalera da. Ez ditu beste lur batzuk hartzen, hala nola etzeak, sastrakadiak eta baso-azalera.

**Ingurune landa-hiritarra:** landaren eta hiriaren arteko trantsizio-espazioa, hiri-periferian eraikitako ingurua baino harago kokatzen dena. Hartan, landako eta hiriko lurzorua erabilerak eta bizimoduak nahasten dira.

**Paisaia:** lurraldearen edozein zati, biztanleek hautematen duten moduan. Faktore naturalen eta/edo giza faktoreen eraginez eta haien arteko erlazioen ondorioz sortzen da.